

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

45/2020 Foru Agindua, otsailaren 26koa, baimentzen duena José Cruz Zabala Urtaranen behin-behineko izendapena Urkabustaizko Udaleko idazkari lanposturako, harik eta titularra itzuli arte edo lanpostua zerbitzu eginkizun zein metaketa bidez edo bitarteko bat izendatuz bete arte

Urkabustaizko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela, María Luisa Velasco Iruña udaleko idazkaria, aldi baterako lan ezintasunenean bera, ordezkero, lanpostu horretan ari zen bitarteko langileak borondatez uko egin diolako lanpostuari 2020ko otsailaren 22tik aurrerako ondorioekin.

Hori dela-eta, udala izapideak egiten ari den bitartean estatu osorako gaikuntza duen batek lanpostua bete arte zerbitzu eginkizun edo metaketa bidez edo, horrelakorik egon ezean, edo bitarteko bat izendatuz, proposatzen du udal horretako karrerako funtzionario José Cruz Zabala Urtaranen behin-behineko izendapena egitea harik eta titularra itzuli arte edo lanpostua lehen adierazitako sistemen bidez bete arte, prestakuntza tekniko egokia duela iritzita.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidez eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betetz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. José Cruz Zabala Urtaranen behin-behineko izendapena egitea Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan haren titularra ez dagoen bitartean eta berriro itzuli arte edo, lanpostua bete arte estatu osorako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako sistemen bidez.

Bigarrena. Izendapenak 2020ko otsailaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa duenari, Urkabustaizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA